

SCORE PROIEKTUAREN 2. PARTZUERGO-BILERA ALACANTEN

Posted on 20/06/2023 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Europear proiektuak](#), [Living Labs](#), [SCORE](#)

Joan den astean, [SCORE Proiektua](#)ren Partzuergoak egindako bigarren bileran izan ginen Alacanten. Hiru egun oso emankorretan zehar, proiektuan inplikaturako bazkide guztiekin biltzeko aukera izan genuen (kostaldeko hirietako bazkide teknikoak eta 10 Living Labs barne), bi urte hauetan ikasitako ideiak, esperientziak eta lezioak elkartrukatzeko, baita hurrengo urratsak eta hurrengo urterako egutegia eta egindako lanaren eguneratzeak koordinatzeko ere. Pozgarria izan zen proiektu honen arrakasta posible egiten ari diren pertsona guztiak ezagutzea eta emaitzarik onenak lortzeko lanean jarraitzea.

